

Psikolinguistika

Autor: Zabaleta Arangoa, Maider (Licenciada en Psicología, Graduada en Educación Primaria).

Público: Educación. **Materia:** Educación. **Idioma:** Euskera.

Título: Psikolinguistika.

Resumen

Disziplina zientifiko honek hizkuntza eta psikologiaren arteko harremana du ikasgai. Psikolinguistika psikologiaren adarretako bat da eta hizkuntzaren jabetzea, garapena edota gizakiok nola erabiltzen dugun hizkuntza azaltzeaz arduratzen da. Horretarako, ikuspuntu desberdinak kontutan hartu behar dira planteamendu psikolinguistikoak lantzerakoan. Esate baterako, irizpide neurologiko, psikologiko eta antropologikoak erabiliko dira hizkuntzaren eskuraketan, ulermenean, erabilpenean,...eragiten duten faktoreak ezagutzeko. Termino hau Gustave Guillaumek gauzatu zuen. Linguista honek psikosistema izena eman zion bere teoriari eta bertan osagai linguistikoak psikologikoekin elkartu zituen. Psikosistema horretan gizakion komunikazioari dagozkion hainbat prozesu aztertzen dira.

Palabras clave: Psikolinguistika, hizkuntza.

Title: Psycholinguistics.

Abstract

This scientific discipline has lessons in the relationship between language and psychology. Psycholinguistics is one of the branches of psychology and is responsible for understanding language, development, and human language. For this purpose, different points of view must be taken into account when developing psycholinguistic approaches. For example, neurological, psychological and anthropological criteria will be used to find out about the factors that affect language acquisition, comprehension, use... This term was made by Guillaume. This linguist called him a psychosystem, which he combined with linguistic and psychological components. In this psychosocial analysis of various processes related to human communication.

Keywords: Psycholinguistics, language.

Recibido 2017-11-05; Aceptado 2017-11-13; Publicado 2017-12-25; Código PD: 090025

SARRERA

Disziplina zientifiko honek hizkuntza eta psikologiaren arteko harremana du ikasgai. Psikolinguistika psikologiaren adarretako bat da eta hizkuntzaren jabetzea, garapena edota gizakiok nola erabiltzen dugun hizkuntza azaltzeaz arduratzen da. Horretarako, ikuspuntu desberdinak kontutan hartu behar dira planteamendu psikolinguistikoak lantzerakoan. Esate baterako, irizpide neurologiko, psikologiko eta antropologikoak erabiliko dira hizkuntzaren eskuraketan, ulermenean, erabilpenean, ...eragiten duten faktoreak ezagutzeko.

Termino hau Gustave Guillaumek gauzatu zuen. Linguista honek psikosistema izena eman zion bere teoriari eta bertan osagai linguistikoak psikologikoekin elkartu zituen. Psikosistema horretan gizakion komunikazioari dagozkion hainbat prozesu aztertzen dira.

Prozesu horiek bi multzotan banatzen dira modu orokor batean. Alde batetik, *kodifikazioa* edo hizkuntzaren ekoizpena dugu. Kodifikazioa gero eta aberatsagoa izateko hiztegi luze baten erabilpena saihestezin bihurtzen da. Horrekin batera, estruktura gramatikal gehiago erabiliz kodifikazioa gero eta garatuagoa izanen da.

Beste aldetik, *dekodifikazioa* edo hizkuntzaren ulermena agertzen da, kodifikazioaren alderantzizko prozesua dela esan daiteke. Hau da, komunikazioaren ulermen prozesutzat jo daiteke. Horretarako, esandako prozesuen sinbologia edo kodigo desberdinak ezagutu behar dira.

Beraz, gizakion arteko komunikazioa ekuazio bat bezala ulertu daiteke. Honetan, pertzepzioa, ulermena eta ekoizpena saltsa berebanean sukaldatzen dira. Kanpoko estimuletan ere oinarritzen da komunikazioa. Gainera, espresio ekoizpen mota desberdinak daude, hots, hitz egitea, keinuak egitea, kuadro bat margotzea, abesti bat konposatzea...

Psikolinguistikarekin jarraituz, ondoko ataletan psikolinguistikaz aritu diren zenbait autoreen ideiak, teoriak azaltzen dira. Aditu bakoitzak hizkuntzaren jabetze eta garapenaren inguruan duten ikuspuntua ezagutuko dugu. Hasteko,

Vygotsky, Skinner, Piaget eta Brunerren teoria psikolinguistikoak ikusiko ditugu eta azkenik, Ignasi Vilaren ikuspuntu psikolinguistikoak elebitasunaren garapenean aztertuko ditugu.

L.S. VYGOTSKY

Psikolinguistikaren eremuan ekarpen gehien egin zuten adituen artean Lev Vygotsky dago. Horretarako, komunikazioari buruzko teoria bat landu zuen. Honetan, Vygotskyk hizkuntza edo komunikazioaren hainbat mekanismo aztertzen ditu. Izan ere, mekanismo horiek izaera psikologikoa dute Vygotskyren ustez.

Funtzio mental garrantzitsuenak parte hartzen dute haurrek hizkuntza garatzen dutenean. Batez ere, funtzio sistematikoa. Nahiz eta funtzio dinamikoak ere oso garrantzitsuak izan. Horretaz aparte, sistema neurologiko zentralak paper garrantzitsu bat jokatzen dute hitz egiteko mugimenduetan, gestualizazioa. Burmuineko (batez ere zonalde premotorrean) lesioak badaude, espresio horiek ez dira menperatzen. Horretaz aparte, beste motatako arazoak azpimarratu daitezke: Hitzen sekuentziari dagozkion arazoak, esan nahi denaren antolaketari dagozkionak edota afasia sindromeak (ulertzeko eta ekoizteko arazoak).

Vygotskyk adierazten du hitz egiteko nahiak eta haurrek gustuko dutenaren artean lotura dagoela. Hurbilean dauden elementuen izenak ere errazago ikasiko dituzte haurrek. Horren ondorioz, esaten ditugun lehendabiziko hitzak dira aita, ama edo tata (ahizpa/arreba). Beraz Vygotskyren teoriak hainbat estrategia mental azpimarratzen ditu haurra hitz egin/komunika ahal izateko.

B.F. SKINNER ETA JEAN PIAGET

Hizkuntzaren ikaskuntzaz jardun zuen beste autore bat **Skinner** dugu eta Baldintzapenaren Teoria sortzailea da berau.

Skinner enpirismoaren barruan kokatuko genuke, hots, hizkuntza kanpoko estimuluen bidez garatzen dela pentsatzen du autoreak.

Bere ustez, hizkuntzaren ikaskuntza baldintzapen mekanismo sinpleen bidez sortzen da. Hasieran, haurrek imitatu egiten dute eta ondoren, hitz zehatzak egoerekin, objektuekin edo ekintzekin erlazionatzen hasten dira.

Hiztegiaren eta gramatikaren ikaskuntza, baldintzapen operantearen bidez eskuratzen dugu, hau da, haurrak esaldiak modu egokian ahoskatzen dituenean, hitz berriak sartzen dituenean, galdera eta erantzun egokiak formulatzen dituenean...inguruko gainontzeko pertsonak jarrera hori zoriondu edota saritu egiten dute eta ondorioz, jarrera hori indartzen dute. Modu berean, akatsak egiten dituenean zigortu (ez onartu) egiten dute jarrera oker hori inhibituz.

Hizkuntza haurrak baldintzapenaren bidez ikasten duen erantzunak dira Skinnerren ustez. Hizkuntzaren jabetze eta garapenari buruzko bere eredu teorikoaren aspektu garrantzitsuenak ondokoak dira:

- Gizakiaren hizkuntzaren jabetze prozesuak zerikusi gutxi du beste espezieenekin konparatuz (adibidez, loaren hizkuntza jabetze prozesua).
- Haurrek helduen hizkuntza imitatzen dute eta imitazio hau hizkuntza jabetzearen faktore kritikoa da.
- Helduek haurren okerrak edo akatsak zuzentzen dituzte eta umeei zuzenketa honen bidez ikasten dute.
- Umeei erabiltzen duten hizkuntza, helduek hitz egiten duten moduaren imitazioan datza.

Beraz, autore honen arabera, hizkuntzaren jabetze eta garapenean kanpoko balditzek eragiten dute. Honez gain, bere ustez, hizkuntzaren erabilerak umeen behar batzuk asetzean du oinarria.

Skinnerren teoriak kritika batzuk jaso zituen. Alde batetik, hizkuntza oso konplexua dela eta konduktismoaren teoria berau azaltzeko ez dela nahikoa azpimarratzen zuten. Konduktismoa animalien ikaskuntzan oinarritzen da eta ondorioz, jokaera orokortzeko joera du (animaliek egiten dutenaren azalpena ezin da gizakiaren jokaeretara orokortu). Bestalde, konduktismoak ez dituela hizkuntzaren jabetze eta garapenaren etapak zehazten, hau da, teoria honen arabera hizkuntza batukaria da.

Teoria honekin desadostasunean dagoena **Piaget** autoreak dugu. Honen arabera, inguruneak garrantzia gutxi du eta ia ez du eraginik kognizioaren aldaketa kualitatiboan. Bere ustez, haurra bere da bere ezagutza eraikitzen duena eta ondorioz, baita hizkuntzarena ere.

Piagetek ezagutzaren teoria genetiko eta formal bat planteatzen du. Honen arabera, umeak mundu fisiko eta sozialaren e-
struktura kontzeptuala domeinatu behar du hizkuntza jabekuntzarako.

Hizkuntzaren jabekuntzarako beharrezkoa da adimena autore honen ustez. Pentsamendua eta hizkuntza bereztuta
garatzen dira, pentsamendua jaiotzetik hasten baita garatzen, hizkuntzaren ikaskuntza baino lehenago. Umea hitz egiten
hasteko beharrezkoa da garapen kognitibo konkretu batetara heltzea. Beraz, Piageten ustez, pentsamenduak ahalbidetzen
du hizkuntza. Honek esan nahi du, umeak jaiotzean ez duela hizkuntzarik, garapen kognitiboaren prozesuaren parte bezala
eskuratzen joango baita pixkanaka.

Umeak hasieran bere pentsaerak komunikatzeko ez du hizkuntzarik erabiltzen eta bere helburua ez da besteekin
sozialki komunikatzea, bere pentsaerak adieraztea baizik. Hori dela eta, Piagetek aipatutako honi *hizketa egozentrikoa*
deitu zion.

Autorearen ustez, haurrek garatzen dituzten eskemak adimenaren sinonimo dira. Hauek beharrezkoak dira ingurunera
egokitu eta bertan bizirauteko. Bizi diren ingurunearen azterketaren bidez, umeek eskemak *eraikitzen* eta metatzen
dituzte eta ingurunearekin elkarreaginean arituz eskema hauek *egokitzen* dituzte esperientzia berriei eraginkortasunez
aurre egiteko.

Ikaskuntza umearen lehenengo esperientzia sentso-motorialekin hasten da baina garapen mentala lortzeko,
beharrezkoa da garapen kognitiboaren etapa ezberdinak zeharkatzea:


- Sentso-motrizitatearen etapa (0-2 urte).
- Eragiketa aurreko etapa (2-6 urte).
- Eragiketa zehatzen etapa (7-11 urte).
- Eragiketa formalen etapa (12 urtetatik aurrera).

Piagetek bi multzotan banatu zituen bi lengoia: aurre-linguistikoa eta linguistikoa. Honekin batera, aipagarria dena da
konpetentzia linguiskoaz gain, konpetentzia kognitiboa ezinbestekoa dela hizkuntzaz jabetzeko eta garatzeko.

JEROME BRUNER

Jerome Bruner psikologo bultzatzailea izan zen. Psikologia eremu ezberdinetan aritu zen, psikologiaren garapenean,
ikaskuntzan eta hezkuntzan.

Garapenaren ideian sujetua da nagusi, non jasotako informazioaren bitartez ikaskuntza sortzen du.



Informazio horren transformazioa hiru sistemen bitartez egin daiteke, Brunerren usteetan:

1. "Enactivo": Ume batentzat pilota estimulu da eta bota (ekintza) egin daitekeen elementu bat besterik ez du ikusten.
2. "Icónico": Umea gauza askoren irudi mentalak ditu, nahiz eta zer diren definitzen ez dakien.
3. Sinbolikoa: Informazioa kodifikatzeko hizkuntza eta notazio matematikoak erabiltzen ditu. Grabitatea adibidez.

Intrukzio Teoria

Garapenaren ezaugarriak kontutan hartzen ditu (Enactivo, Icónico eta Sinbolikoa) baita instrukzioaren edukiak (materiaren estruktura eta edukien sekuentziazioa) eta azkenik motibazioa eta esfortzua. Guzti honekin modu esanguratsu baten bitartez edozein adinetako ikasleei edozein materia irakasteko ahalmena izango du irakasleak.

Deskubrimenduaren ikasketa

Ikastea bakoitzak arazoak konpontzeko gaitasunak lortzean datza. Hau da, ikasleak berak lortuko ditu ezagupenak. Deskubrimenduaren ikasketak ez du esan nahi irakasleak ez direla behar. Hauek klasean ariketak jarri edo planteatuko dituzte ikasleak bilatu, manipulatu, esploratu eta ikertu dezaten. Horrela ezagutza berriak eta gaitasun orokorrak (arrazonamendu induktiboa), arauak nola formulatu, hipotesiak sortu eta informazioa bilatzeko gaitasuna lortuko dituzte.

IGNASI VILA

Ignasi Vila psikologia ebolutiboaren eta hezkuntzaren katedratikoa da. Bere bizitza osoan zehar hezkuntza elebidunarekin erlazionatutako kontuetan ahalegindu da eta lan horien artean, ikuspuntu psikolinguistikoak elebitasunaren garapenean dago. Lan honetan, psikolinguistika erabiliko du elebitasunaren garapena aztertzeko eta era berean, honen erlazioa garapen akademiko eta kognitiboan.

Haur elebidun baten lehenengo etapan prestamo linguistiko aunitz ematen dira. Hasieran, bere hiztegia mugatua da memoriaren garapena baldintzatzen diolako, eta nahiz eta 3 urterekin adibidez bi lexiko ezberdinen aurrean dagoela jakin, esaldiak osatzean hizkuntza ezberdineko hitzak erabiltzen ditu hiztegiaren eskuraketa mugatua delako hainbat faktoreen bidez, eta horien artean lehenago aipatutako memoriaren garapena dugu. Hala ere, denborarekin hizkuntza bakoitzaren hiztegia bereizten du, sakontzen du eta modu egokian erabiltzen du. Horretarako ezinbestekoa da “una persona:una lengua” printzipioa jarraitzea. Hau da, helduak beti hizkuntza berdina erabiltzea haurraren erlazionatzeko eta horrela ez dira sortuko nahaste linguistikoak.

Ikasle elebidunak eta ikasle elebakarrak modu paraleloan eskuratzen dute sistema morfosintaktikoa. Elebidun batek (euskara-gaztelera) paraleloki eskuratzen ditu euskarazko eta gaztelera arauak.

Ikasle elebidunetan, ama-hizkuntza mantendu behar da hizkuntza “vehicular” bezala eta praktika pedagogiko bat suposatu behar du. Hau lortu behar da, egoera negatiboak edota eskola porrota saihesteko.